

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AMURRIOKO UDALA

Tokiko gobernu batzarraren 2023ko irailaren 21eko erabakiaren laburpena, zeinaren bidez 2023ko Amurrioko Gabon kanten erronda lehiaketarako deia egiten baita

BDNS (Identif.): 722447.

Bat etorri Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan xedatutakoarekin, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Deialdiaren testu osoa Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean dago ikusgai: <https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/722447>.

Erakunde adjudikatzailerak: Amurrioko Udala.

Bulegoa: kultura arloa.

Xedea

Deialdi honen xedea da 2023ko Amurrioko Gabon kanten erronda lehiaketa norgehiagoka bidez arautuko duten baldintzak arautzea.

Prozedura bideratzeko eta ebazteko organo eskuduna

Jatorrizko eskumena alkateari dagokion arren, alkatearen 2023ko ekainaren 26ko 23/397 Dekretuaren bidez egindako eskuordetza kontuan hartuta, tokiko gobernu batzarrak du onesteko eskumena. Instrukzioa kultura sailari dagokio.

Onuradunak

Oinarrietan jasotako baldintzak betetzen dituen ezein pertsona talde; ez da nahitaezkoa elkartea izatea.

Betekizunak eta horiek aurkezteko moduak

Gutxienez zortzi lagunek osatutako abesbatzak, ahotsez eta instrumentuz osatuta egon daitezkeenak. Bi kategoria ezartzen dira: A kategoria, aurrez eraturako abesbatzak, bertokoak nahiz kanpokoak, musika koralean modu egonkorrean dihardutenak. B kategoria, bat-batean eraturako taldeak, musika koralean modu egonkorrean ez dihardutenak.

Helburua

Lehiaketaren helburua da, batetik, bat-batean eraturako abesbatza taldeek kalean parte hartzea sustatzea, eta, bestetik, musika giroa sortzea parte hartzen duten abesbatzen bidez.

Oinarri arautzaileak

Behin betiko onetsiak dirulaguntzak arautzen dituzten gainerako oinarriekin batera, Amurrioko Udalaren 2022ko abenduaren 22ko osoko bilkuraren erabakiaren arabera, eta osorik argitaratuak 2023ko otsailaren 24ko ALHAOn (23. zk.).

Zenbatekoa

Deialdi honetako lehiaketak sei sari ditu:

A kategoria	B kategoria
1. 400,00 euro	1. 300,00 euro
2. 250,00 euro	2. 200,00 euro
3. 150,00 euro	3. 100,00 euro

Zenbateko horretan egoki diren atxikipenak egingo dira, PFEZren araudian ezarritakoari jarraituz. 33478.480 partidaren kontura ordainduko da, "Sariak" kontzeptuan.

Oinariak aztertzea, argibideak eta agiriak

Amurrioko Udaleko kultura arloan (Juan Urrutia plaza z.g., 01470 posta kodea, 945891161 telefonoa), eta Amurrioko Udalaren web orrian, deialdia ALHAOn argitaratu eta biharamunetik hasita, eta izena emateko epea amaitzen den arte, 09:00etatik 14:00etara, astelehenetik ostiralera.

Izena emateko lekua

Amurrioko Kultur Etxea (945.891450).

Izena emateko epea

2023ko azaroaren 13tik abenduaren 8ra. Garaiz eta behar bezala aurkeztutako eskaerak baino ez dira onartuko izapidetzeko.

Aurkeztu beharreko agiriak

Eskabidearekin batera, koruaren izenburua, ordezkaria, kide kopurua eta harremanetarako datuak aurkeztu behar dira.

Balioespen irizpideak

Balioespen irizpideak epaimahaiak erabakiko ditu, eta epaimahaia musika koralean adituak diren bi pertsonak osatuko dute. Epaimahairen epaia ehuneko 90ean oinarrituko da aurkeztutako obren exekuzio teknikoan, adierazpen eta tinbre aberastasunean, afinazioan, ahoskeran, dinamika bisualean, aniztasunean eta kalitatean. Balioespenaren gainerako ehuneko 10a abesbatzaren girotzean, eszenaratzean eta jantzietan oinarrituko da.

Jakinarazteko modua

Lehiaketaren ebazpena posta elektroniko bidez jakinaraziko zaie parte hartzaileei, baita web orrian ere.

Ebazteko epea

Hamabost egun.

Deialdiaren ebazpena jakinarazteko epea

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 40. artikulua arabera, egintza eman eta hamar eguneko epean egin behar da jakinarazpena.

Ebazpena

Musika koralean adituak diren bi pertsonak osatuko dute epaimahaia. Horien lana izango da lanak hautatzea eta sariak banatzea. Erabakia apelaezina da.

Errekurtsoak

Ebazpenak amaiera emango dio administrazio bideari, eta haren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkeztu ahal izango da Gasteizko administrazioarekiko auzien epaitegian, jakinarazpena ematen denetik bi hilabeteko epean. Nahi izanez gero, berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio ebazpena eman duen organoari, jakinarazpena ematen denetik hilabeteko epean.

Amurrio, 2023ko urriaren 20a

Alkatea

JOSÉ RAMÓN MOLINUEVO LAÑA